

## I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa  
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

**Herri Lan Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 88/2010 FORU DEKRETUA, ekainaren 22koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide-sareko zeharbideetan abiadura-murriztaileak eta alertako zeharkako bandak jartzeko instrukzio teknikoa onartzen da.**

Kontuan hartu da honakoetan xedatutakoa: Espainiako Konstituzioko 148.1 artikuluko 5. idatz-zatia, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 10.34 artikulua, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru-erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7.a) artikuluko 8. puntua, eta aipatutako Legea garatzeko martxoaren 5eko 17/85 Foru Dekretua. Horrenbestez, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-organoek bakarreko eskumena hartu dute, errepideak eta bideak planifikatu, proiektatu, eraiki, kontserbatu, aldatu, finantzatu, erabili eta ustiatzeko orduan. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Legean ezartzen diren arau teknikoak eta Estatuko gai honetan dituen bakarreko eskumenak errespetatuko dira.

Testuinguru horretan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Errepideei buruzko otsailaren 18ko 2/1993 Foru Araua onartu zen. Bertan eta 5 eta 2 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Lurralde Historiko honetako errepide-sarean erabilera eta jabetza publikoko bide gisa jasotakoak izango dira foru-errepideak, baldin eta ibilgailu automobila zirkulatzeko proiektatu eta eraiki badira.

Zirkulazioaren Araubide Orokorreko 5.2 artikulua (azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuan onartutakoak) oinezkoen pasabide goratuak eta alertako zeharkako bandak jartzeko aukera aurreikusten du, betiere, Sustapen Ministerioak horretarako egindako oinarritzko araudia betetzen bada eta erabiltzaileen, eta bereziki, txirindularien bide-segurtasuna bermatzen bada. Hori horrela, irailaren 23ko FOM/3058/2008 Aginduaren bidez, onartu egin zen Estatuko errepide-sareko errepideetan abiadura-murriztaileak eta alertako zeharkako bandak jartzeko instrukzio teknikoa (2008ko urriaren 29ko 261. zenbakidun «B.O.E.»).

Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Euskal Legeko 11. artikulua honakoa dio: Euskadiko Errepideen Plan Orokorreko arau teknikoak eta seinaleztatzeko arauak nahitaez bete beharko dira eta indarrean jarriko dira, Euskal Administrazio Publikoen titulartasuneko errepideetan koordinazio egokia bermatzeko.

Aipatutako 11. artikuluko 4. puntuak lurralde historikoetako foru-organoei ematen die arau teknikoak eta seinaleztatzeko arauak garatzeko eskumena, beharrezkotzat jotzen diren alderdietan, erabiltzaileen bide-segurtasuna bermatze aldera. Izan ere, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago oinezkoen pasabide goratuak eta abiadura-murriztaileak jartzeko berariazko araudirik. Hori dela eta, Bizkaiko Errepideei buruzko otsailaren 18ko 2/1993 Foru Arauko bigarren xedapen gehigarrian ezarrikoaren arabera (foru-Órgano honi ahamena ematen dio arau teknikoak eta seinaleztatzeko arauak indarrean jartzeko, beharrezkotzat jotzen diren alderdietan garatuz), Bizkaiko Foru Aldundiak, Herri Lanen foru-diputatutako elementuak jartzeko, bide-segurtasuna lurralde historiko honetako errepide-sarean lortu eta finkatu beharreko oinarritzko helburua da.

**Departamento de Obras Públicas**

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 88/2010, de 22 de junio, por la que se aprueba la Instrucción Técnica para la instalación de Reductores de velocidad y Bandas Transversales de Alerta, en las travesías de la red de carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia.**

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 148.1, apartado 5 de la Constitución Española, artículo 10.34 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y artículo 7, a) punto 8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos y en el Decreto Foral 17/85, de 5 de marzo, dictado en desarrollo de la citada Ley, los Órganos Forales del Territorio Histórico de Bizkaia han asumido la competencia exclusiva en materia de planificación, proyecto, construcción, conservación, modificación, financiación, uso y explotación de carreteras y caminos, sin perjuicio del deber de respetar las normas técnicas que se establezcan en el Plan General de Carreteras del País Vasco, Ley 2/1989, de 30 de mayo, y las competencias exclusivas del Estado en esta materia.

En este contexto, se aprobó la Norma Foral 2/1993, de 18 de febrero, de Carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia, en la cual, y a tenor de lo dispuesto en sus artículos 5 y 2, serán carreteras forales las incluidas en la Red de Carreteras de este Territorio Histórico como vías de dominio y uso público proyectadas y construidas para la circulación de vehículos automóviles.

El artículo 5.2 del Reglamento General de Circulación, Real Decreto 1428/2003, de 21 de noviembre, prevé la posibilidad de instalación de pasos peatonales sobreelevados y Bandas Transversales de Alerta, siempre que se cumpla la regulación básica dictada al efecto por parte del Ministerio de Fomento y se garantice la seguridad vial de los usuarios, y en particular, la de los ciclistas, y así, mediante la Orden FOM/3053/2008, de 23 de septiembre, se procedió a aprobar la Instrucción Técnica para la instalación de reductores de velocidad y bandas transversales de alerta en carreteras de la Red de Carreteras del Estado («B.O.E.» número 261, de 29 de octubre de 2008).

El artículo 11 de la Ley vasca 2/1989, de 30 de mayo, Reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, establece que las normas técnicas y de señalización del Plan General de Carreteras de Euskadi serán de obligado cumplimiento y se pondrán en vigor al objeto de asegurar la debida coordinación en las carreteras que sean de titularidad de las Administraciones Públicas Vasca.

El punto 4 del citado artículo 11, confiere a los Órganos Forales de los Territorios Históricos, la competencia sobre el desarrollo de las normas técnicas y de señalización en los aspectos que se consideren necesarios, en aras a garantizar la seguridad vial de los usuarios de las mismas, y a la vista de que a día de hoy, no existe en la Comunidad Autónoma de País Vasco, normativa específica sobre la instalación de Pasos de Peatones sobreelevados y Reductores de Velocidad, es por lo que, a tenor de lo dispuesto en la Disposición Adicional Segunda de la citada Norma Foral 2/1993, de 18 de febrero, de Carreteras de Bizkaia, la cual faculta a este Órgano Foral para poner en vigor las normas técnicas y de señalización, desarrollándolas en aquellos aspectos que se consideren necesarios, esta Diputación Foral de Bizkaia, a propuesta del diputado foral de Obras Públicas, acomete la redacción de una Instrucción Técnica para la instalación de los citados elementos en las travesías de las carreteras pertenecientes a la Red de Carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia, ya que la seguridad vial es un objetivo básico a conseguir y consolidar en la red de carreteras de este Territorio Histórico.

Instrukzio hau Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra arautzen duen maiatzaren 30eko 2/1989 Euskal Legeko 11.4 artikuluan ezarritako izapidepean jarri da eta Eusko Jaurlaritzako Órgano eskudunak 2010eko otsailaren 19an emandako aldeko txostena du.

Hori dela eta, eta Herri Lanen foru-diputatuak proposatuta, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17, 27.1.4, 64 eta 65 artikuluetan ezarritakoaren arabera, Foru Aldundiak 2010eko aren (e)ko bileran irizpena eta onespena eman ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

#### Lehenengoa

Onartu egingo da Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide-sareko zeharbideetan abiadura-murriztaileak eta alertako zeharkako bandak jartzeko instrukzio teknikoa, Eranskin gisa erantsi dena.

#### Bigarrena.—Aplikazio-eremua

Onartutako instrukzioa Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide-sareko errepideetan abiadura-murriztaileak eta alertako zeharkako bandak jartzekoan aplikatuko da, beharrezkoa den lekuetan. Eki-men propioz edo tokiko erakunde interesdunak eskatuta jarriko dira aipatutakoak.

#### Hirugarrena.—Baimenak eskatzeko eta emateko prozedura

Herri Lanen Foru Saileko Errepideen Zuzendaritza Nagusiari dagokio abiadura-murriztaileak edo alertako zeharkako bandak jartzeko baimena ematea, tokiko erakunde interesdunak eskatuta.

Baimenak eskatu eta emateko orduan, Bizkaiko errepideei buruzko otsailaren 18ko 2/1993 Foru Arauan ezarritako betekizunak beteko dira, bai eta Foru Dekretu honetan jasotako betekizunak eta prozedura ere.

Hala badagokio, tokiko erakunde interesdunak baimen-eskabidea aurkeztuko du Errepideen Zuzendaritza Nagusian, Ustiapen Zerbitzuan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan horretarako gaitutako edozein organotan. Eskabidearekin batera, jarri nahi diren abiadura-murriztaileen eta/edo alertako zeharkako banden kokapena zehazten duen krokis deskribatzailea eta bi elementuok teknikoki deskribatzen dituzten parametroak aurkeztuko dira.

Eskatutako jarduera lursailen egiaztatzean eta dagozkion txostenak igortzean, Órgano eskudunak ebazpena emango du, eta, bertan, baimena emateko baldintzak edo ukatzeko arrazoiak ezarriko dira.

Baimenak gainerako lizentzien eta beharrezko baimenen erreserban emango dira, hirugarrenei kalterik eragin gabe eta lursail edo ondasunetan lehendik zeuden eskubideak errespetatuz. Edozelan ere, ez da jabetza publikoa lagako, eta Foru Administrazio honek ez du erantzukizunik hartuko baimenaren titularrari edo hirugarrenei dagokienez.

Aurrefabrikatutako abiadura-murriztaileak obra-aldeetan behin-behinean erabiltzeko baino ez dira baimenduko edo jarriko.

#### Laugarrena.—Eraikuntza eta kontserbazioa

Abiadura-murriztaileak eta/edo alertako zeharkako bandak tokiko erakunde eskatzaileak jarriko ditu edo, Herri Lanen Foru Sailak eskatuta jartzen badira, Sailak berak jarriko ditu, eta bera arduratuko da obra zibilaz, seinale bertikal eta horizontaletaz, drainatzeaz eta herri-argiteriaz. Horretarako, baimenean eta Foru Dekretu honetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Edonola ere, bi kasuetan Herri Lanen Foru Saila izango da eraikitako abiadura-murriztaileen eta/edo alertako zeharkako banden titularrak.

Elementu guztiak bideko elementu funtzionalak dira eta Herri Lanen Foru Saila arduratuko da horiek kontserbatzeaz, tokiko erakunde eskatzaileak nahiz Sailak berak eraiki baditu ere.

Esta Instrucción ha sido sometida al trámite establecido en el citado artículo 11.4 de la Ley vasca 2/1989, de 30 de mayo, Reguladora del Plan General de Carreteras del País Vasco, contando con informe favorable emitido por el Órgano competente del Gobierno Vasco, de fecha 19 de febrero de 2010.

En su virtud, y a propuesta del diputado foral de Obras Públicas, de conformidad con lo establecido en los artículos 17, 27.1.4, 64 y 65 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, de Elección, Organización, Funcionamiento y Régimen de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, previa deliberación y aprobación por la Diputación Foral en su reunión del día de de 2010,

DISPONGO:

#### Primero

Aprobar la Instrucción Técnica para la instalación de Reductores de Velocidad y Bandas Transversales de Alerta, en las Travesías de la Red de carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia, que se une como Anexo.

#### Segundo.—Ámbito de aplicación

La Instrucción aprobada será de aplicación en la instalación de reductores de velocidad y bandas transversales de alerta en aquellos puntos de las carreteras integrantes de la Red de Carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia donde sea necesaria su colocación y, que se lleve a cabo bien por propia iniciativa o a instancia de la entidad local interesada.

#### Tercero.—Procedimiento de solicitud y otorgamiento de autorizaciones

Corresponde a la Dirección General de Carreteras, del Departamento Foral de Obras Públicas, autorizar la instalación de reductores de velocidad y/o bandas transversales de alerta, a instancia de la entidad local interesada.

La solicitud y el otorgamiento de autorizaciones se ajustará a los requisitos establecidos al efecto en la Norma Foral 2/1993, de 18 de febrero, de Carreteras de Bizkaia, así como a los requisitos y procedimiento que se recogen en el presente Decreto Foral.

En su caso, la entidad local interesada presentará en la Dirección General de Carreteras, Servicio de Explotación, o en cualquiera de los órganos habilitados al efecto por el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, solicitud de autorización a la que se acompañará un croquis descriptivo que determine la situación de los reductores de velocidad y/o bandas transversales de alerta que se pretenden instalar, así como los parámetros de descripción técnica de los mismos.

Comprobada la actuación solicitada sobre el terreno y emitidos los correspondientes informes, se procederá a su resolución por el órgano competente, en la cual se establecerán las condiciones en las que la misma se otorga, o los motivos de su denegación.

Las autorizaciones se otorgarán a reserva de las demás licencias y autorizaciones necesarias, sin perjuicio de tercero y dejando a salvo los derechos preexistentes sobre los terrenos o bienes. No supondrá en ningún caso la cesión del dominio público, ni la asunción por parte de esta Administración Foral de responsabilidad alguna respecto del titular de la autorización o de terceros.

Los reductores de velocidad prefabricados sólo podrán ser autorizados e instalados para su uso provisional en zonas de obras.

#### Cuarto.—Construcción y Conservación

La instalación de reductores de velocidad y/o bandas transversales de alerta será por cuenta de la entidad local solicitante o, en el caso de que se instalase a iniciativa del Departamento Foral de Obras Públicas, por éste, incluyendo tanto la obra civil, como la señalización vertical y horizontal, drenaje y alumbrado público, debiendo ajustarse a las condiciones establecidas en la autorización y en el presente Decreto Foral. En ambos casos el Departamento Foral de Obras Públicas será la titular de los reductores de velocidad y/o bandas transversales de alerta construidos.

La conservación de todos sus elementos, como elemento funcional de la vía, correrá a cargo del Departamento Foral de Obras Públicas, tanto si se construyera por la entidad local solicitante, como por el propio Departamento.

**Bosgarrena.—Legezkotasuna babesteko neurriak**

Herri Lanen Foru Sailak obrak eteteko eta baimendu gabeko erabilerak edo baimenean ezarritako baldintzetara egokitzen ez direnak bertan behera uzteko erabaki ahalko du. Eteteko erabakia tokiko erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio.

Herri Lanen Foru Sailak, Bizkaiko Errepideei buruzko otsailaren 18ko 2/1993 Foru Arauak xedatutakoaren arabera egokiak diren zehapenei edo erantzukizunei kalterik eragin gabe, honako ebazpenen bat hartu beharko du gehienez bi hilabeteko epean.

- Baimendu gabeko obren edo baimenean ezarritako baldintzetara egokitu ez direnen eraispena agintzea, eta, horretarako, hamabost eguneko epea ematea tokiko erakundeari. Epe hori igarotakoan, Sailak ofizioz jardungo du eta dagozkion kostuak tokiko erakundeari igorriko dizkio.
- Egindako obrak legeztatze espediente egokiak izapide-tzea agintzea, Foru Dekretu honetara egokitu daitezen.

**XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA**

Gehienez 2 urteko epean, izapidea indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide-sarean dauden eta Foru Dekretu honetan onartutako izapidearen edukiarekin lotuta dauden gailu guztiak instrukzioan ezarritakora egokitu beharko dira.

Abiadura-murriztaile eta/edo alertako zeharkako bandaren bat zuzendu, osatu edo kendu behar bada, Herri Lanen Foru Sailak dago-kion tokiko erakundeari jakinaraziko dio, jarduketa egokia gauza dezan, jakinarazi eta bi hilabeteko epean. Bestela, Sailak ofizioz gauzatuko du jarduketa eta kostua tokiko erakundeari igorriko dio.

**XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA**

Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide-sareko zeharbideetan abiadura-murriztaileak eta oinezkoen pasabide goratuak jartzeko instrukzio teknikoan xedatu ez diren kasuetan, honakoak beteko dira: Euskal Autonomia Erkidegoko legedia, Bizkaiko errepideei buruzko Foru Araua, irailaren 23ko FOM/3053/2008 Agindua, eta gai honen gainean aplikatu behar diren estatuko gainerako arauak.

**AZKEN XEDAPEN BAKARRA**

Foru Dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Bilbon, 2010eko ekainaren 22an.

Herri Lanen foru-diputata,  
ITZIAR GARAMENDI LANDA

Ahaldun Nagusia,  
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

**ERANSKINA****ABIADURA-MURRIZTAILEAK ETA ALERTAKO ZEHARKAKO BANDAK JARTZEKO INSTRUKZIO TEKNIKOAK****1. SARRERA**

Tradizionalki, herriko zeharbideak gainerako errepideetatik bereizten ez diren zatitzat jo dira. Hori horrela, udalerria zeharkatzean, askotan herriarteko zatien trazadura eta ebakidura mantendu dira. Gehienetan, abiadura mugatzeko seinale bertikalak baino ez dira jartzen.

Abiadura-muga hori errespetatzen ez bada, zeharbidea herriarteko zatia baino arriskutsuagoa izaten da. Horrenbestez, istripumaila handitzen da eta bertatik hurbil bizi direnen bizi-kalitateak behera egiten du.

**Quinto.—Medidas de protección de la legalidad**

El Departamento Foral de Obras Públicas podrá disponer la paralización de las obras y la suspensión de usos no autorizados o que no se ajusten a las condiciones fijadas en la respectiva autorización. La paralización será notificada a la entidad local interesada.

El Departamento Foral de Obras Públicas, sin perjuicio de las sanciones o responsabilidades que resultaran procedentes de acuerdo con lo dispuesto por la Norma Foral 2/1993, de 18 de febrero, de Carreteras de Bizkaia, deberá adoptar en el plazo máximo de dos meses, una de las siguientes resoluciones:

- Ordenar la demolición de las obras no autorizadas o no ajustadas a las condiciones establecidas en la autorización, concediendo para ello un plazo de quince días a la entidad local, transcurrido el cual el citado Departamento actuará de oficio girando los costes correspondientes a la entidad local.
- Ordenar la Instrucción de los oportunos expedientes para la eventual legalización de las obras realizadas a fin de que se adapten al presente Decreto Foral.

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA**

En el plazo máximo de 2 años, desde la entrada en vigor de esta Instrucción, todos los dispositivos existentes en la Red de Carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia relacionados con el contenido de la Instrucción que se aprueba por este Decreto Foral, deberán ser adaptados a lo dispuesto en ella.

En el caso de que algún reductor de velocidad y/o banda transversal de alerta existente debiera ser corregido, complementado o suprimido, se comunicará por parte del Departamento Foral de Obras Públicas a la entidad local correspondiente para que lleve a cabo la actuación oportuna en un plazo de dos meses desde su notificación. En caso contrario la actuación será llevada a cabo de oficio por el Departamento, girando su coste a la entidad local.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA**

En lo no dispuesto en la Instrucción Técnica para la instalación de Pasos de Peatones sobreelevados y Reductores de Velocidad en las Travesías de la Red de Carreteras del Territorio Histórico de Bizkaia, se estará a lo establecido, por la legislación de la Comunidad Autónoma de País Vasco, la Norma Foral de Carreteras de Bizkaia, Orden FOM/3053/2008, de 23 de septiembre y demás normativa estatal de pertinente aplicación en lo que a esta materia se refiera.

**DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA**

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 22 de junio de 2010.

La diputada foral de Obras Públicas,  
ITZIAR GARAMENDI LANDA

El Diputado General,  
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

**ANEXO****INSTRUCCIÓN TÉCNICA PARA LA INSTALACIÓN DE REDUCTORES DE VELOCIDAD Y BANDAS TRANSVERSALES DE ALERTA****1. INTRODUCCIÓN**

Tradicionalmente se han considerado las travesías de población como una parte no diferenciada del resto de la carretera, de forma que al atravesar la localidad se mantiene en muchos casos el trazado y la sección de los tramos interurbanos. En la mayoría de los casos únicamente se cuenta con la instalación de señalización vertical de limitación de velocidad.

Si esta limitación de velocidad no se respeta, la travesía se convierte en más peligrosa que el tramo interurbano, ocasionando una mayor accidentalidad y pérdida de calidad de vida de los residentes en la cercanía de la misma.

Herriko bide-segurtasuna gehiago hobetzeko asmoz, herriko zatietan abiadura egokian zirkulatzeko sustatzen duten neurri berriak aztertu behar dira, ibilgailuei kalte handirik eragin gabe. Zeharbide jakin batean neurriak ezartzeko orduan, zeharbide osoan zehar neurritzeko abiadura uniforme lortzeko diseinua egin behar da. Gainera, saihestu egingo da gidariak maniobra gogorrak egin behar izatea, aurrerapen nahikoz antzematen ez dituzten elementuen ondorioz.

Ondore horietarako, zeharbideko «sarrerako atea» deitu izan denak garrantzia berezia du. Sarrerako atea honakoa da: zeharbideko mutur bakoitzean jarritako elementuren bat edo gehiago, zabalduko errepideetako zirkulazio-araubidearen eta zeharbidean nahi denaren artean trantsizio segurua eta eraginkorra lortzeko. Sarrerako atea ondo diseinatuz gero, zeharbidea neurritzeko abiaduran sartu ahal da, eta, ondorioz, zeharbidean ezarri beharreko gainerako neurriek ondo funtzionatuko dute (sarrerako atea izan daitezke glorietak, «chicaneak», ertzean jarritako edo marraztutako luzetarako banda, bidearen zabalera murrizteko itxura ematen duena eta balizajearen bidez indartuta dagoena, espaloiak, herri-estetikako argiak, seinaleak, balizajea, etab.).

Aurrekoen osagarri gisa, abiadura-murriztaileak eta alertako zeharkako bandak daude. Abiadura-murriztaileetako elementuak eta alertako zeharkako bandak jarri, eraiki eta seinaleztatzeko irizpide teknikoak ezartzen dituen instrukzio teknikoak egitea beharrezkotzat jotzen da, batez ere kontuan hartzen badugu Zirkulazioari buruz indarrean dagoen Araudi Orokorrean xedatutakoa. Bertan, «oinezkoen pasabideetako irtenuneak eta zeharkako bandak» aurreikusten dira.

Abiadura-murriztaileen artean «oinezkoen pasabide goratuak» daude («abiadura trapezoidalaren murriztaileak» izena ere badute), eta hainbat abantaila dituzte, besteak beste:

- Zirkulatzeko abiadura murriztea.
- Ibilgailuei gutxi eragitea.
- Oinezkoen pasabideak identifikatu eta babestea.
- Oinezkoei eta batez ere mugikortasun murriztua duten erabiltzaileei joan-etorria erraztea.
- Ibiltarien ibilbidearen jarraitutasuna indartzea.
- Oinezko eta gidarien arteko ikusgarritasuna hobetzea.
- Ibilgailuek oinezkoen pasabideetan aparkatzea saihestea.

«Mando-bizkar» izeneko abiadura-murriztaileak ere badaude. Luzetarako profil zirkularra duten gailu horiek herri-ingurunean neurritzeko abiadura sustatzeko diseinatuta daude. Gailu hauen eraginkortasuna bermatuta dago, gure inguruko beste herrialde batzuetan erabiltzen baitira. Elementu horien diseinua irizpide jakin batzuetara egoki dadin eta errepideko erabiltzaile guztientzat ahalik eta irtenbide eraginkorrena lor dadin, espero diren emaitzak lortzeko ezaugarriak zehaztu behar dira.

Alertako zeharkako bandak (AZB) abisu akustiko edo bibrakor gisa erabiltzen dira eta gidariei jakinarazten diete prebentzio-ekintzaren bat egitea beharrezkoa izan daitekeela. Prebentzio-ekintza hori hurbil jarriko diren seinaleetatik ondorioztatuko da, eta, AZBen konbinazioei esker, bere xedea hobeto beteko da.

## 2. DEFINIZIOAK

Abiadura-murriztaileak (AM): Bideetan jarritako gailu hauen xedea bideko zati jakin batzuetan zirkulazio-abiadura murriztuak mantentzea da.

Gailu horiek zeharkatzean, ibilgailuetan azelerazio bertikala sortzen da eta horrek deserosotasuna eragiten die gidari eta bidaiariei, baldin eta ezarritakoa baino arinago badoaz.

Con objeto de avanzar en la mejora de la seguridad vial urbana, procede estudiar la ejecución de nuevas medidas que, sin generar un notable perjuicio a los vehículos, fomenten la circulación a velocidad adecuada en los tramos urbanos. Conviene resaltar que el conjunto de medidas a disponer en una determinada travesía debe diseñarse de forma que, coordinadamente, consigan una velocidad moderada y uniforme en toda ella, evitando que alguno de los elementos instalados pueda propiciar bruscas maniobras por no ser percibidas por los conductores con suficiente anticipación.

A estos efectos, cobra especial importancia lo que se ha venido a llamar «puerta de entrada» a la travesía. Esta puerta de entrada consiste en uno o más elementos dispuestos en cada uno de los extremos de la travesía con el fin de conseguir una transición segura y eficaz entre el régimen de circulación de carretera abierta y el deseable en la travesía. Un correcto diseño de la puerta de entrada propiciará el acceso a la travesía a velocidad moderada, lo que permitirá el buen funcionamiento del resto de medidas a implantar en la travesía (la puerta de entrada puede ser una glorieta, una «chicane», una banda longitudinal en el eje adoquinada o pintada con efecto visual de reducción de la anchura de carril y reforzada con balizamiento, introducción de aceras, introducción de alumbrado de estética urbana, señalización y balizamiento, etc.,..).

Como medidas complementarias a las anteriores, se encuentran los reductores de velocidad y las bandas transversales de alerta. Se considera necesaria la elaboración de una instrucción técnica que fije los criterios técnicos para la instalación, construcción y señalización de elementos reductores de velocidad y bandas transversales de alerta, máxime teniendo en cuenta lo dispuesto en el vigente Reglamento General de Circulación, en el que se contemplan los «resaltos en los pasos para peatones y bandas transversales».

Entre los reductores de velocidad se encuentran los «Pasos Peatonales sobre elevados» también denominados «reductores de velocidad trapezoidal» que combinan varias ventajas entre las que cabe destacar:

- Reducción efectiva de la velocidad de circulación.
- Escasa afección a los vehículos.
- Identificación y protección de los pasos peatonales.
- Facilitan la travesía de los peatones, especialmente a los usuarios de movilidad reducida.
- Refuerzan la continuidad del itinerario de viandantes.
- Mejoran la visibilidad mutua entre peatones y conductores.
- Disuaden el estacionamiento de vehículos en el paso de peatones.

Existe otro tipo de reductores de velocidad denominados como de lomo de asno consistentes en dispositivos de perfil longitudinal circular, diseñados para fomentar el mantenimiento de velocidades moderadas en zonas urbanas. La eficacia de estos dispositivos está respaldada por la utilización generalizada en otros países de nuestro entorno. Para que el diseño de estos elementos responda a unos criterios concretos y se consiga una solución lo más eficaz posible para todos los usuarios de la carretera, se hace necesario definir las características exigibles para que se puedan conseguir los resultados esperados.

Las bandas transversales de alerta (BTA) tienen la función de actuar como señal de advertencia acústica y vibratoria, y alertar a los conductores de que puede ser necesario realizar alguna acción preventiva. Dicha acción preventiva deberá deducirse de la señalización que se dispondrá en las proximidades, y que, gracias a la combinación con las BTA, cumplirá su misión con mejores resultados.

## 2. DEFINICIONES

Reductores de velocidad (RV): Dispositivos colocados sobre la superficie de rodadura, cuya finalidad es la de mantener unas velocidades de circulación reducidas a lo largo de ciertos tramos de vía.

Su efectividad reside en el hecho de crear una aceleración vertical en los vehículos al atravesar los dispositivos, que transmite incomodidad a los conductores y ocupantes cuando se circula a velocidades superiores a las establecidas.

Pasabide horien helburu nagusia zeharbidean zehar (luzera edozein dela ere) zirkulazio-abiadura murriztua mantentzea da. Abiadura hori aurretik murriztu beharko litzateke, bidearen hasieran jarri ohi diren beste neurri batzuei esker (seinaleak, glorietak, etab.).

Abiadura-murriztaileak geometriaren arabera sailkatzen dira. Hona hemen bi motak:

- *Zeharkako ebakidura trapezoidaleko abiadura-murriztaileak edo oinezkoen pasabide goratuak (OPG):* Oinezkoen pasabideen funtzioa dute. Sestra galtzadaren zorua baino pixka bat gorago dago, eta, ondorioz, ibilgailuak sarbide-arrapala txikia gainditu behar dute, beren bidea jarraitzeko. Legezko ondorioetarako, abiadura-murriztaile hauek oinezkoen pasabideei nahiz abiadura-murriztaileei buruzko indarreko lege-xedapenak aplikatuko dira.
- *Mando-bizkar ebakidurako abiadura-murriztaileak (ABAM):* Segmentu zirkularreko zeharkako ebakidurako gailuak. Abiadura-murriztaile hauek beste bi tipologiatan bereiz daitezke:
  - Guztiz in situ egindakoak. Gainazala baino pixka bat altuago egindakoak, zoruaren errodaturako geruzaren antzeko ezaugarriak dituzten aglomeratuzko oinarriak, instrukzio honetan araututako dimentsio zehatzei jarraiki.
  - Aurrefabrikatuak. Normalean zoladurara mihiztatu eta finkatzen diren moduluak dira. Obretan behin-behinean erabiltzeko baino ez dira jartzen.

Alertako zeharkako bandak (AZB): Galtzadako errodaturaren gainazala aldatzen duten gailuak dira. Horien bidez, gidariari jakinarazi nahi zaio subjektiboki antzemandakoa baino bide-arrisku handiagoa duen zati batera hurbiltzen ari dela eta arreta handia jarri behar duela. Horretarako, bibrazioak eta zaratak helarazten dira, ibilgailuaren esekidura eta moteldurako sisteman duen eraginaren bidez.

AZBak hiru taldetan sailka daitezke:

- Fresatuak: zoladuraren sestraren azpitik daude.
- Irtenak: zoladuraren sestraren gainetik daude.
- Maila berekoak: zoladurarena ez bezalako ehundura daukate eta zoladuraren ia maila berean daude.

### 3. ABIADURA-MURRIZTAILEAK

#### 3.1. Jartzeko irizpideak

Agiri honetan aipatutako OPG eta ABAMen xedea ez da zeharbidean gidatzen duten ibilgailuen abiadura murriztea, beste neurri batzuen bidez (normalean zeharbidearen hasieran jartzen dira) murriztutako abiadura mantentzea baizik.

Ondorioz, neurriok ez dira inoiz jarriko ibilgailuen % 15 orduko 60 kilometro baino arinago doan puntuetan.

Galtzadaren ardatzarekiko modu perpendikularrean jarriko dira eta galtzada osoa okupatuko dute, hau da, zirkulazioko bi bideak, bazterbideak eta aparkalekuak, halakorik badago.

Bi OPGen arteko tartea ez da 50 metro baino baxuagoa izango.

#### 3.2. Mugak

Ezingo da abiadura-murriztailearik jarri, honakoetan:

- Zeharbidetzat jotzen ez diren sare-tarteetan, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 1. eranskinean jasotako definizioaren arabera. Bertan, honela definitu da zeharbidea: «herritik igarotzen den errepede-zatia (1)». Hala ere, salbuespen-kasue-

(1) Herriaren definizioa: Trafikoa, motoredun ibilgailuen zirkulazioa eta bide segurtasunari buruzko Legearen 1. eranskineko 64. atalaren arabera: «64. Herria. Eraikinak dituen esparrua; bere bideetako sarrera eta irteeretan, hurrenez hurren, herriaren sarrerako seinalea eta herriaren irteerako seinalea daude kokatuta.» HERRIA sartzeko kartel horien kokapenari dagokionez 8.1.IC-k, bere 3.2 idatz-zatian, hau ezarri du: «Herria kokatzeko kartelak zeharbidearen hasieran jarriko dira; hasieratzen jotzen da gutxienez bere luzerako bi herenetan eraikin sendotuak dituen eta gutxienez ertzetatik baten kaleen bilba duen hiriko tartea.»

El objetivo principal que tienen estos pasos es conseguir, que a lo largo de la travesía, sea cual sea su longitud, se mantenga una velocidad de circulación que ya debería haberse visto reducida con otras medidas (señalización, glorietas, etc,...) normalmente dispuestas al principio de la misma.

Los Reductores de velocidad se clasifican, atendiendo a su geometría en los siguientes tipos:

- *Reductores de velocidad de sección transversal trapezoidal o Pasos peatonales sobre elevados (PPS):* Cumplen la función de pasos peatonales, situándose su rasante a un nivel ligeramente superior al del firme de la calzada, de manera que los vehículos se ven obligados a superar una pequeña rampa de acceso para continuar su trayectoria. A efectos legales, a este tipo de reductores de velocidad le son de aplicación las disposiciones vigentes relativas tanto a pasos de peatones como a reductores de velocidad.
- *Reductores de velocidad de sección lomo de asno (RVLA):* Dispositivos de sección transversal de segmento circular. Este tipo de reductores de velocidad pueden clasificarse en otras dos tipologías diferentes:
  - Ejecutados totalmente in situ: Consisten en una ligera sobre-elevación de la superficie realizadas a base de aglomerado de características análogas a las de la capa de rodadura del firme y con unas dimensiones concretas y reguladas en la presente instrucción.
  - Prefabricados: Generalmente se componen de módulos que se ensamblan y fijan al pavimento. Sólo serán instalados para uso provisional en obras.

Bandas transversales de alerta (BTA): Son unos dispositivos modificadores de la superficie de rodadura de la calzada, cuyo objetivo es transmitir al conductor la necesidad de extremar la atención en su aproximación a un tramo en el que existe un riesgo vial superior al percibido subjetivamente, empleando para ello la transmisión de vibraciones o ruidos derivados de su acción sobre el sistema de suspensión y amortiguación del vehículo.

Las BTA se pueden clasificar en tres grupos:

- Fresadas: Quedan por debajo de la rasante del pavimento.
- Resaltadas: Quedan por encima de la rasante del pavimento
- A nivel: Con distinta textura a la del pavimento, quedan sensiblemente al mismo nivel del pavimento.

### 3. REDUCTORES DE VELOCIDAD

#### 3.1. Criterios de implantación

Los PPS y los RVLA contemplados en este documento no tienen como misión reducir la velocidad de los vehículos que circulan por la travesía, sino mantener una velocidad ya reducida con otras medidas, normalmente dispuestas al principio de la misma.

Por lo tanto, nunca se implantarán en puntos donde un 15 % de los vehículos superen los 60 km/h.

Se instalarán perpendicularmente al eje de la calzada, ocupando la totalidad de la misma, es decir, ambos carriles de circulación y los arcones o zonas de estacionamiento si los hubiere.

La separación entre dos PPS's consecutivos no será inferior a 50 metros.

#### 3.2. Limitaciones

No podrán instalarse Reductores de velocidad:

- En los tramos de la red que no tengan la consideración de Travesía, de acuerdo a la de definición recogida en el anexo 1 de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, donde se define Travesía como «Tramo de carretera que discurre por poblado (1)». No obstante, de

(1) Definición de poblado: Según el apartado 64 del anexo 1 de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial: «64. Poblado. Espacio que comprende edificios y en cuyas vías de entrada y de salida están colocadas, respectivamente, las señales de entrada a poblado y de salida de poblado.» Respecto a la ubicación de los carteles de entrada a poblado, la 8.1.IC menciona en su apartado 3.2 lo siguiente: «Los carteles de localización de poblado se colocarán al principio de la travesía, considerando como tal la parte de tramo urbano en la que existan edificaciones consolidadas al menos en las dos terceras partes de su longitud y un entramado de calles al menos en uno de los márgenes.»

tan, zeharbidetzat joko dira zirkulazio, trafiko eta erabileren araubidea antzekoa duten zatiak eta berariazko abiadura orduko 50 kilometro baino baxuagoa dutenak. Hori gutzia behar bezala justifikatuko da dagokion azterlanean.

- Lehenasunezko edo Oinarrizko Sareko errepide-zatietan.
- Zeharbideko muturretan, horien hasieratik 50 metro baino gutxiagoko distantzian.
- Larrialdi-ibilgailuek (suhiltzaileak, ambulanziaz, etab.) erabili ohi dituzten zeharbide-zatietan.
- Biaduktuetan, zubietan edo antzeko fabrika-obretan, horiek baino 25 metro arinago edo beranduago.
- Espaloitik edo/eta abiadura-murriztailetik dagoen ikuspena proiektuko abiadurarako kalkulaturakoa gehi orduko 20 kilometroko geraleku-ikuspene baino baxuagoa den lekuetan.
- 200 metro baino gutxiagoko erradiodun zati bihurtetan, eta 200 metro baino gutxiagoko bihurtunearen hasiera baino 40 metro baino gutxiagora.
- V85ek orduko 60 kilometro gainditzen dituen puntuetan.
- % 5eko malda baino gehiagoko zatietan.
- Zirkulaziorako bi bide baino gehiago dituzten zeharbide-zatietan, galtzadak bereizteko erdibitzaile goratua badago salbu.
- Oinezkoen pasabide goratuen kasuan, galtzadaren bi alboetan espalo goratua eta oinezkoen ibilbide jarraitua ez dauden lekuetan.
- Eguneko Bataz besteko Intentsitatea (EBI) 5000 ibilgailu baino gehiagokoa den edo orduko intentsitatea 300 ibilgailu baino gehiagokoa den zatietan.
- Ibilgailu astunen EBI 300 ibilgailu baino gehiagokoa den zeharbide-zatietan.
- Ez dago EBI mugarik, BI-4XXX errepiderako.
- Errepidearen bi alboetan espaloiak dituzten elkargune edo zonen inguruan ez da mando-bizkarreko abiadura-murriztaile jarriko, oinezkoen bideekin nahas ez daitezten.

### 3.3. Diseinatzeko irizpideak

#### 3.3.1. Eraikuntza-materialak

Eraikuntzan erabilitako materialen kalitateak egonkortasuna, galtzadarekiko lotura, desitxuratzeko ezintasuna eta iraunkortasuna bermatu beharko ditu.

«In situ» fabrikaturako abiadura-murriztaileen kasuan, hormigoia (azaleko ehundura 0,6 eta 0,9 artekoa izango da, NLT-355en arabera) edo asfaltozko osagairen bat duten materialak erabiliko dira. Asfaltozko osagaiz egindakoen azaleko marruskaduraren koefizientea gutxienez % 60koa izango da, PG3 Agiriaren 540, 542 eta 543 artikuluan aipaturako amaitutako obraren kalitate-zehaztapenaren arabera.

Aurrefabrikatuen kasuan, materialak kautxu edo eratorriz edota material plastikoz egindakoak izan ohi dira eta errodadura-kapara torloju bidez eusten dira.

#### 3.3.2. Geometria

##### 3.3.2.1. Oinezkoen pasabide goratuen geometria

Oinezkoen pasabide hau zona altu batek eta maldadun bi zatik (arrapalak deitzen dira) osatzen dute. Pasabideak trapezio itxura du.

OPGek ebakidura trapezionala izango dute eta honako ezau-garri hauek beteko dituzte:

- Goiko pasabide horizontalaren zabalera:  $4 \pm 0,20$  metro (salbuespen-kasuetan, luzera txikiagoak baimenduko dira baina gutxienez 2,5 metro eduki beharko dute).
- Altuera: 10 zentimetro (tolerantzia +/- zentimetro 1).
- Arrapalak: metro 1eko luzera, errepideko gehieneko abiadura orduko 30 kilometrokoa bada eta 2,5 metroko luzera, gehieneko abiadura orduko 50 kilometrokoa bada.

forma excepcional, podrán considerarse como travesías aquellos tramos cuyo régimen de circulación, tráfico y usos sean similares al de éstas y su velocidad específica sea inferior a 50 km/h, quedando todo esto justificado convenientemente en estudio correspondiente.

- En los tramos de carretera pertenecientes a las redes de Interés Preferente o Básica.
- En los extremos de la Travesía, a distancia inferior a 50 metros del comienzo de los mismos.
- En los tramos de travesías habitualmente utilizados por vehículos de emergencia (bomberos, ambulancias, etc.).
- En los viaductos, puentes u otras obras de fábrica singulares, y en los 25 metros anteriores o posteriores a ésta.
- Donde la visibilidad disponible desde la acera y/o el reductor de velocidad sea inferior a la visibilidad de parada calculada para la velocidad de proyecto incrementada en 20 km/h.
- En tramos curvos de radio inferior a 200 metros y a menos de 40 metros del comienzo de una curva de radio inferior a 200 metros.
- En los puntos donde la V85 supere los 60 km/h.
- En tramos con pendiente superior al 5%.
- En los tramos de Travesías en que existan más de dos carriles de circulación, salvo que exista mediana elevada de separación de las calzadas.
- Para el caso de los pasos peatonales sobreelevados, en aquellas zonas donde no haya acera elevada en ambos lados de la calzada y un itinerario peatonal continuo.
- En tramos con una IMD de vehículos superior a 5000 veh./día o una intensidad horaria punta superior a 300 veh./hora.
- En los tramos de travesía con una IMD de vehículos pesados superior a 300 veh./día.
- No hay limitación de IMD para las BI-4XXX.
- En las proximidades de las intersecciones o zonas donde existan aceras a ambos lados de la carretera no se colocarán Reductores de Velocidad de Lomo de Asno para evitar que los peatones puedan confundirlos con pasos peatonales.

### 3.3. Criterios de diseño

#### 3.3.1. Materiales de construcción

La calidad de los materiales empleados en la construcción deberá garantizar su estabilidad, unión a la calzada, indeformabilidad y durabilidad.

Para los Reductores de Velocidad fabricados in situ se considerarán materiales adecuados el hormigón, cuya textura superficial estará comprendida entre 0,6 y 0,9 según NLT-355, ó, materiales de componente asfáltico. El coeficiente de rozamiento superficial para los fabricados con componentes asfálticos será al menos del 60 % según la especificación para la calidad de obra terminada indicada en los artículos 540, 542 y 543 del PG3.

En los prefabricados, los materiales suelen ser de caucho o derivados y materiales plásticos, y la sujeción a la capa de rodadura se realiza mediante tornillos.

#### 3.3.2. Geometría

##### 3.3.2.1. Geometría pasos peatonales sobreelevados



El paso de cebra en cuestión comprenderá una zona sobreelevada y dos partes en pendiente, llamadas rampas, formando un trapecio.

Los PPS's serán de sección trapezoidal, con las características siguientes:



- Anchura del paso horizontal superior:  $4 \pm 0,20$  metros (en casos excepcionales, se autorizarán longitudes inferiores, hasta un mínimo de 2,5 metros).
- Altura: 10 centímetros (tolerancia +/- 1 centímetro).
- Rampas: longitud, 1 metro, si la carretera tiene una velocidad máxima de circulación de 30 km/h y 2,5 en el caso de ser 50 km/h la velocidad máxima de circulación

Pasabide goratuak galtzadaren ardatzarekiko modu perpendikularrean jarriko dira zabalera osoan eta galtzada osoa okupatuko dute, hau da, zirkulazioko bi bideak, bazterbideak eta apartalekuak, halakorik badago.

Autobusen intentsitatea altua den kasuetan, pasabide goratu konbinatuak edo «burkoak» (malda desberdinak dituztenak ibilgailu arin eta astunetarako) eraikitzeko aukera aztertuko da.



Abiadura (km/h); Arrapalaren malda (%); Arrapalaren luzera (m); %10; 2,50 eta 4,00 arteko aldagarritasuna; %4.




Velocidad (km/h); Inclinación rampa (%); Longitud rampa (m); 10%; Variable entre 2,50 y 4,00; 4%.

